ISIDORO FAGOAGARI ELKARRIZKETA

MARTIN UGALDEK *"HABLANDO CON LOS VASCOS"* LIBURURAKO HAINBAT ELKARRIZKETA EGIN ZITUEN, TARTEAN ISIDORO FAGOAGA BERATARRARI. HAREN ZATI BAT EKARRI DUGU HONAT, EUSKARATUA.

Martin Ugalde: 79 urte bete dituzunean, zer da zuretzat zure sorlekua, Isidoro?

Isidoro Fagoaga: Gizakiak bere sorlekuko lurrak markatzen du; lurretik jaio eta bere fruituetatik bizi izan den gizakiaren dependentzia horrengatik izanen da, eta norberaren hezurrekin ongarritzea bertze ihesbiderik ez dugulako; ziklo zoragarria. Agian horregatik, eta geografia bakoitzak, klima bakoitzak gizakia modu partikularrean markatzen duelakoz, baina gizakiak bere lurrarekiko duen maitasuna ezinbertzekoa da; maitasun hau, niregan, inoiz baino biziago dago.

M.U.: Nola sortu zitzaizun kanturako afizioa?

I.F.: Zortzi urterekin Eskolapioen eskolarat pasa nintzen. Irakasleen artean euskaldun bakarra zegoen, Luis Larramendi, Larramendi margolariaren osaba. Oroitzapen mikatza dut irakasle haiek gure hizkuntza eta kulturarekiko zuten jarreraz. Egun batez, elizako organista etorri zen eskolara, 12 eta 13 urteko mutil guztiak elizarat ahotsa probatzera joateko eskatuz, abesbatza osatzeko, sopranoak behar baitzituen. Ni izan nintzen baztertzen lehenbizikoa, eta berantago, nire ibilbide artistikoaren gorenean nintzela, barkatzeko erran zidan. Une hartan, ahotsa "mutu" nuen, haur izatetik nerabezarorat pasatzen den momentuan, alegia. Nire ahotsa ez zen guziz neutroa, eta orain, zahartzaroan ere, tinbre berezia dut. Gerora jakin nuenez, krikoideetako artikulazioan dudan artritis baten eraginez omen da, gurea bezalako herrialde hezeetan izugarri txarra den gaitza.

M.U.: Ahots-kordeetan eraginik badu?

I.F.: Artritisaren eraginez ezin da ez bete-betean, ez argitasun osoarekin kantatu bel cantoa, italiar kantua; Wagnerren errepertorioa kantatzera behartu ninduen arrazoietako bat izan zen.

M.U.: Wagnerrekiko lehentasunerako arrazoi bakarra izan da?

I.F.: Bai, garrantzitsuena. Errepertorio italiarra kantatzerakoan nire ahotsaren muga hori hagitz agerikoa zen, batzuetan distira falta sumatzen zen; horregatik aritu nintzen nire ahalmenak mugatzen ninduen horretara, eta baita, dena aitortu behar baitizut, Wagnerren errepertorioa kantatzen hiru edo lau aldiz gehiago ordaintzen zidatelako.

M.U.: Nolatan joan zinen Amerikara?

I.F.: Hamalau urterekin, eta nire gurasoengandik gordeka, Argentinako Tandilen zegoen osabari idatzi nion,

sarobe®
okindegia panadería
Ongi pasa bestak! Tel. 948 630 899 · BERA

kontabilitatea eta zenbakiak menperatzen nituela (egiazki, gorroto nituen, baina hari interesa zekiokeen gauza bakarra zen!) eta laguntzera joan nahi nukeela. Nire harridurarako, gutun bat hartu nuen, barkuko txartela barrenean zuela! Mahaian, solemnitate guztiarekin, kontatu nien, eta bidaia-txartela erakutsi. Ez zidaten sinistu nahi!

M.U.: Beti izan zara abenturazalea, ezta?

I.F.: Hori euskaldun guztien kontua izan da, gizakiona oro har, baina euskalduna bidaiari sortzen da, bereziki Ameriketarat.

M.U.: Desberdinak gara, hortaz, euskaldunak?

I.F.: Ezbairik gabe. Bertzela, nekez uler daitezke amerikarren edo australiarren jarrera epelak; euskaldunak, bere akatsekin eta bere bertuteekin, modu desberdin batean erantzuten du.

M.U.: Eta zer egin zenuen Buenos Airesen?

I.F. Burdindegi batean hasi nintzen lanean, eta operarat joaten hasi nintzen, zaletasunaz. Aita Errandoneak oparitu zidan Eslavaren liburuak musika irakurtzen lagundu zidan, eta kantatzen hasi nintzen, lanean aritzen nintzen bitartean. Romanini tenore ohiarekin ikasten hasi nintzen, nire lankideek animatuta. Hainbat urtez berekin aritu nintzen lanean, Colon Antzokiko operak aditzera joaten nintzen bitartean. Han aditu nuen Florencio Constantino tenor euskalduna, Bilbo ingurukoa. Lanera joana zen, baina bere ahotsa aditu zutenean, lagundu zioten, eta opera-kantari egin zen. Bera eta Titta Ruffo aditzera joaten nintzen. Opera-kantari onenak joaten ziren Colon Antzokirat. Egun batean, Titta Ruffok ni aditzea lortu nuen.

M.U.: Nola?

I.F.: Constantinoren etxeko atarian agertu nintzen, eta bera etxerat noiz ailegatuko esperoan gelditu nintzen. Titta Rufforekin ailegatu zen. Nire burua aurkeztu nuen eta nire ahotsa aditzea nahi nuela erran nien. Eurekin igan nintzen. Constantino pianoan exeri zen, eta eskala batzuk egiteko eskatu zidan. Erraz erantzuten nuela ikusita, zerbait kantatzen ba ote nekien galdetu zidan. Erromantza batzuk kantatu nituen, eta Titta Ruffok erran zidan: “ahots horrekin Italiarat joan behar zenuke”. Joateko modurik ez nuela erran nien, baina han moldatzea erraza zela erran zidaten, eta ezagutzen zituzten bitartekari eta italiar kantuko irakasleentzako gomendio-gutunak eman zizkidaten.

M.U.: Zenbat urte zenituen?

I.F.: Hemeretzi.

M.U.: Ausarta izan zara, ez duzu uste?

I.F.: Arrakasta izateko ausardia behar da, eta duzunean erabili egin behar da, gaztea zarenean; gero, batzuetan bilatu egiten da, eta ez da aurkitzen, ordurako, gehiegi dakizu.

M.U.: Zenbat denbora egin zenuen Parman musika ikasten?

I.F.: Bi urte eta erdi, I. Mundu Gerraren eraginez, 1917an, Kontserbatorioa itxi eta Berarat itzuli nintzen, eta Madrilen jarraitu nituen ikasketak. Han egin nuen debuta.

M.U.: Nola sentitu zinen lehen kontratu harekin?

I.F.: Emozionatuta, jakina; Espainian inoiz egin den tournéerik onenerako kontratatu ninduten. 1923. urtea zen, eta 3.000 pezeta ordaintzen zizkidaten, hilean.

M.U.: Eta zuri gutxi iruditzen zitzaizun. Zenbat irabaztera iritsi zinen?

I.F.: Milango Scalan, atzerritar batek lortutako errekor guztiak puskatu nituen, hamaika denboraldi jarraietan aritu bainintzen kantuan, eta 10.000 lira (1930ean, 25.000 pezeta inguru) kobratzen nituen emanaldiko. Hilean zortzi bat emanaldi ematen nituela kontuan hartuta, 160.000 pezeta inguru irabazten nituen hilabetean.

M.U.: Eta sasoi betean zinela, Italian, Gernikako bonbardaketaren garaian, kantua utzi zenuen.

I.F.: Mussolinik adierazpen batzuk egin zituen, Gernika bonbardatu izanaz harro zegoela. Adierazpen haiek ikusita, protestaka hasi nintzen; hura basakeria zela, Italia herrialde basatia zela, eta erregimenak iraun bitartean nik ezin nuela gehiago kantatu. Zuzentzeko eskatu zidaten. Ezetz erran nuen. Kontratuan geratzen zitzaizkidan zazpi emanaldiak ematea adostu genuen. Haiek egindakoan Donibane Lohizunerat joan nintzen. Han nintzela itzultzeko deitu zidaten, zuzendu egin zituztela hitz haiek, Gernika alemaniarrek bonbardatu zutela argitu zela. Baina ez nintzen gehiago itzuli.

M.U.: Eta idazten hasi zinen. Beti euskal gaiez.

I.F.: Beti; nire idazlan guztietan, aldizkarietako kolaborazioetan, liburu guztietan… nire herriaz eta arteaz idatzi dut, horrela sentitu dut.

M.U.: Eta zein garrantzia ematen diozu geure kulturari?

I.F.: Garrantzia erlatiboa, ttikia, akaso, baina euskal herritarrontzat arrunt funtsezkoa da; geure kulturari uko egitea bizitzari berari uko egitea litzateke; eta hortaz, mundu zibilizatuaren deszentralizazioaz hitz egiten denean, batez ere Europan, kulturen autonomia bat behar du deszentralizazio horrek.

M.U.: Ez al duzu uste hizkuntza bati eta bere adierazpen kultuei laguntza ofizialik ez ematea oztopo handia direla?

I.F.: Hala uste dut, eta euskarak eta euskal kulturako adierazpenek errespetua eta laguntza guztia merezi dute.

Isidoro Fagoagaren lagunak taldea